

Dirutza tzar bat kostatzea



BEA SALABERRI
IRAKASLEA

Halaxe hasten da *Un pognon de dingue* (Dirutza tzar bat) izenburuko dokumentala (2021, Bioret, Delrue, Fourrage), Warren Buffet estatubatuar milioi askokoaren 2005eko errana gogora ekarriz: “Klase borroka izan, bada, baina nire klasea da, aberatsen klasea, gerla hori eramaten ari dena eta irabazten ari gara”. Erranaldiak iragartzen duenaren biolentzia asumituak ekibalente gutxi izanen ditu Historian, dudarik gabe.

Dokumentalaren ardatza dira kapitalismoaren basakeria eta dirudunek ekonomia eta mugimendu sozialengan nahiz politikoengan duten eragina, monopolioa, alde bakartasuna eta inpunitatea, eta honen parean masaren edo langilegoaren ahulezia eta ezintasuna. Neurri “sozialak” beti dira petatxuak, anekdotikoak eta ororen buru klase nagusiaren zerbitzuko. Gizarte honek ez du gehiago deus gordetzen, ez du deus isiltzen. Alderantziz, badirudi lehia dela, ea zeinek ateraldi boro-bilena egin, txokanteena, likitsena eta ea zenbateko tarte eskaintzen zaion komunikabideetan. Ez du programarik behar, dagoeneko aurreikusia delako gertatu beharra.

Buffeten hitzek, arras deskonplexatu eta bortitzek, oihartzun egiten dieten azken bost urteetan Macron presidentearen gisakoen ahotik entzun behar izan direnei. Gogoratzen dugu “soineko ederraren erosteko molderik hobereana, lan egitea da” famatua; irri egin genuen, Fillonek aurreko presidentzialetan eskuratu ator eta soinekoak oroituz. Hastapena zen, 2018an edo. Badira geroztik bestalde: “Lan bat nahi baduzu, aski duzu bidea zeharkatzea”, “langileek gehiago lan egin behar dute,



PAULA ESTÉVEZ

gehiago pagatuak izan gabe” edo “laguntza sozialek sekulako kostua dute, eta jendeek pobre izaten segitzen dute” eskandalizatu eta eskandalagarria, gisa bera “grebalariak, bordela sakatzaille haundiak dira”. Emeki, irriak sartu ziren. Ateraldiz ateraldi, etorkizuna baino, errealitatea begi bistakoa gelditzen zelako, ozenki. Boterean direnek, ahoan bilorik gabe aitor ditzakete haien pentsamoldeak orain, disimulu-

rik eta arriskurik gabe. Macron jesuita ikasle zintzoa ez da lehena holako ateraldiak egiten dituen. Aitzin Sarkozyk zuen maisu maila, zela Rollex, zela Fouquet’s.

2022 hastapen honetan, Frantziako Estatuko hainbat hauteskunderen atarian gaude, bereziki lehendakartzari begirakoa. Momentuz, hautagai potentzialak trumilka dira, ezker nahiz eskuin. Aldiz ateraldi nazkagarriek, ideia bihurriek, langileriarekiko mespretxuak, etengabe mehatxuek, plaza libre dute. Eta komunikabideek badute zer ikusirik bortizkeria horrekin. Ordu onetan, leku onak erreserbatzen zaizkie hautagaiei, zeinek bere kuttuna gomita. Nagusi botereduna ardura da dotore, ibilbide espantagarrikoa, ederra (Zemmour kenduta) eta inteligen-tea. Langilea beti da zikin, inutil eta mentsa.

Udaberri hau, hauteskunderena izanen da. Ez da besterik deus gertatuko, lasai egon zaitzte. Jukutria eta klase herra baizik ez da ikusiko eta gero, gainera, borreroa hautatzera deituko dute, okerren artean hoberena aukeratzera.

Programak, etorkizunari begirako planteamendu berriak, erabaki urratzaileak ez dira ageriko. Nehork ez baititu ala nehork ez baititu galdezkatzen? Auskalo.

Alabaina, zoritxarrez, horren guzieren ikusteko, entzuteko, bizitzeko, hautatzeko eta gero pairatzeko, ordaindu beharra da, zuzenean edo zeharka, gisa batez edo bestez, sosez, denboraz nahiz izerdiz. Eta kostatuko da dirutza animala, gainera. ●